



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

UDAL PLENOA
Bilkura arrunta

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2017/12/05	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00 – 20:50	

BILDUTAKOAK:

- Lehendakaria: María Ubarretxena Cid (EAJ-PNV)
- Zinegotziak: Ibon Arrupe Aldecocca (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Ander Garay Zabaleta (EAJ-PNV)
Amaia Ceciaga Garmendia (EAJ-PNV)
Juan Karlos Garitano Ezkurra (EAJ-PNV)
Amaia Azpiazu Aramburu (EAJ-PNV)
Anuska Ezkurra Zubizarreta (EAJ-PNV)
Eneko Barberena Mondragon (EH BILDU)
Amaia Larrañaga Galdos (EH BILDU)
Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga (EH BILDU)
Maialen Zabaleta Madinabeitia (EH BILDU)
Jose Luis Encinas Jose (EH BILDU)
Itxaro Artola Lizarralde (EH BILDU)
Urki Larrea Ibabe (EH BILDU)
Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE)
Victoriano Fuentes Noguera (PSE-EE)
Anabel Legaz Canflanca (PSE-EE)
Igor Urizar Murgoitio (Baleike)
Eva Abuin Bideburu (Baleike)
Juan Luis Merino Sanabria (Irabazi Arrasate)
- Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta
- Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

BILDU EZ DIREN
UDALKIDEAK:



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

BERTARATZE
ETA IRTEERAK:

Oscar García zinegotzia 19:00etan irten da eta 19:03eta bertaratu da, 7. puntuan, osotasunerako emendakinei zegokien interbentzioak iraun bitartean eta osotasunerako emendakinaren bozketa hasi aurretik.

Juan Luis Merino zinegotzia 19:35etan irten da eta 19:37etan bertaratu da, EH Bilduren 8. Emendakin partzialaren interbentzioak zirauen bitartean eta emendakin honen bozketaren aurretik.

Amaia Larrañaga zinegotzia 20:15etan irten da eta 20:20etan bertaratu da, 10. Puntuari zegokion diktamenaren irakurketan zehar. Bozketa hasi baino lehen bertaratu da.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria): Arratsaldeon denoi, beno gutxi gorabehera zinegotzi guztiak gaude hemen, eta Plenoari hasiera ematera goaz.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

2017ko azaroaren 7ko bilkurako akta, aho batez, onartzen da.

2.-HISTORIA ETA ARKITEKTURA ONDAREAREN KATALOGOTIK, KULTURA INTERES OROKORREKO ONDASUN HIGIEZINEN ZERRENDATIK, GOMESTIO BASERRIA KENTZEKO PROPOSAMENA. (2017HORD0001)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

IKUSIRIK Uribarri auzoa 32an dagoen Gomestio baserriari dagokion espediente administratiboa aztertuz, eta eraikinaren egoera azalduz, Udalaren Zerbitzu Teknikoek egindako txostenean jarraian azaltzen dena jasotzen dela:

1.- Udalerrian indarrean dagoen Plan Orokorren arabera (HAPO), Gomestio baserria Historia eta Arkitektura Ondarearen Katalogoan jasota dago kultura interes orokorreko ondasun higiezin bezala.

Hori horrela, Zaharberitze Zientifikoko eta Kontserbatzeko Zaharberitzeko esku-hartzeak soilik baimendu daitezke baserrian, Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren I. eranskinean (Birgaitzeko esku-hartzeak) zehaztutakoari jarraituz.

2.- Dena dela, Plan Orokorrak jasotzen du, baita ere, Udalak baduela zer babestu erabakitzeko aukera; kasuan-kasuan, eta aztertu ostean, bai eraikuntzaren balio intrintsekoa eta kontserbazio-egoera, bai esku-hartzeak ingurunean izango duen eragina eta garrantzi ekonomikoa; baita ere erabaki dezake esku-hartzea egiterakoan zer baldintza bete behar diren.

Horren harira, gainera, plan orokorrak ezarritako irizpideen arabera, Udala da erabakia hartzeko eskumenduna baserrian egin daitezkeen esku hartzeen inguruan .



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

3.- 2016ko azaroaren 4an M^a Angeles Acha Madinabeitia andreak, eraikinaren jabe goaren izenean, eskatu zuen Gomestio baserria udal ondare katalogotik kentzea txosten tekniko batean oinarrituta.

Txosten horren arabera, baserriak egun ez du kultura interes orokorreko ondare baliorik, besteak beste, dagoeneko galdu dituelako hainbat elementu arkitektoniko.

Bestalde, zenbait bidetatik ere jakinarazi zaigu eraikinaren mantentze egoera txarra dela:

a).- Bere garaian aurkeztutako aurri ekonomikoa aurreikusten zuen txostena, Alvaro Ibarrola arkitektoak sinatua eta jabeek aurkeztua.

b).- Baserriaren eranskinak eraisteko idatzitako proiektu teknikoa, J.L.Heriz ingeniariak sinatua.

c).- Higiezinari buruz Foru Aldundiko Kultura sailak egindako txostena.

4.- Egoera hori ikusita, baserriaren ondare balorea eta mantentzeko beharra zalantzarik izan daitezke; eta bestalde, jabeen eskaera bideragarria; katalogotik ateratzea posible izan daiteke, alegia.

5.- Hori horrela, deskatalogatze prozedura hasi aurretik, 2016ko azaroaren 22an Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari iritzia eskatu zitzaion, baina orain arte ez da erantzunik jaso.

KONTUTAN IZANIK, Plan Orokorren arabera, Udala dela erabakia hartzeko eskumenduna baserrian egin daitezkeen esku hartzeen inguruan.

KONTUTAN IZANIK, bestalde, Gomestio baserriaren eraikinak ez duela lege mailako babesik, 7/1990 Euskal Kultur Ondareari buruzko Legean zehaztutakorik, eta, ondorioz, ezin zaizkiola aplikatu bertan jasotako zehaztapenak.

KONTUTAN IZANIK, halaber, Udalarik dagokiola baloratzea eta aztertzea baserriaren segurtasuna eta egonkortasuna, baita bizigarritasunerako beharrezko baldintzak ere, hiru alderdi horien egokitasuna, ordea, zalantzarik delarik jakinarazitako eraikinaren mantentze egoera txarragatik.

KONTUTAN IZANIK, aurreko ataletan adierazitako arrazoietan oinarrituz, egokia dela Gomestio baserriaren eraikina Historia eta Arkitektura ondarearen katalogotik, kultura interes orokorreko ondasun higiezin zerrendatik, kentzea.

KONTUTAN IZANIK, 2/2006 Hirigintza eta Lurzoru Legeak 100. artikulua zehazten duenaren arabera, katalogoa aldatzeko jarraitu beharko dela Toki Erregimenari buruzko araudian udal ordenantzetarako ezarritako prozedura.

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluan eta Toki araubideko arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan xedatutakoari jarraituz, hauxe proposatu du Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzordeak:



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

I.- Uribarri auzoa 32an dagoen Gomestio baserriaren eraikina Arrasateko Plan Orokorraren Historia eta Arkitektura ondarearen katalogotik, kultura interes orokorreko ondasun higiezin zerrendatik, kentzea hasiera batean ontzat ematea.

II.- Espedientea jendaurrean erakustea, HOGEITA HAMAR egunean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz, interesdunek bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak eta iradokizunak egin ditzaten.

Halaber, akordioa eraikinaren jabegoari jakinaraziko zaio.

7/1985 Legearen 49. artikulua azken paragrafoan ezarritakoaren arabera, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, hasiera batean onartutakoa behin betiko onartutzat joko da

3.- ZARATA MAPA BEHIN BETIKOZ ONARTZEKO PROPOSAMENA. (2017IING0028)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko irailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen Arrasateko Zarata Mapa hasiera batean ontzat ematea eta agiria jendaurrean hilabetez jartzea.

Dagokion iragarkia 2017ko urriaren 10ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta 2017ko urriaren 5ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta jendaurreko epealdian ez da alegaziorik ezta iradokizunik ere aurkeztu.

Udalaren Zerbitzu Teknikoek egindako txostena ikusirik eta kontutan izanik 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa, 13. artikuluan ezarritakoa kontutan izanik, hauxe proposatu du Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzordeak:

I.- Arrasateko Zarata Mapa behin betikoz ontzat ematea.

II.- Agiria behin betikoz ontzat ematen duen akordioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Halaber, agiri hori Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzara eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidaliko da.

4.- 2017KO AURREKONTUAREN EXEKUZIO EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA, 2017-09-30ean. (2017RBAR0036)



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

2017ko aurrekontuaren exekuzio egoerari buruzko informazio bidaltzen du batzordeak 2017-09-30ari buruz, zenbaki laburpen hauen arabera:

A - GASTUAK (Datuak mila eurotan)

A.1 - ITXITAKO URTEALDIETAN DAUDEN ORDAINDU GABEKO GASTUAK (AURREKO URTEALDIETAKOAK)(Aukea sartuta)

ZENBATEKOA GUZTIRA	ORDAINKETA GUZTIRA	BAJAK	ORDAINDU BARIK 2017-09-30ean
2.048,88	1.990,71	5,8	52,29
	97,16%	0,28%	2,54%

A.2 - TXERTATUTAKO KREDITUAK (EXEKUZIOAN DAUDEN GASTUAK, 2016KO AURREK. LIKIDAZIOTIK)

ZENBATEKOA GUZTIRA	BAIMENDUA	ERABILIA (adjudikatua)	ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK (exekutaturik)	ORDAINDUA	SOBERAKINA
3.749,01	3.700,46	1.747,47	1.289,64	1.220,02	48,54
	98,70%	46,64%	34,40%	32,54%	1,29%

A.3 – 2017KO URTEALDI KORRONTEA EDO AURREKONTUA (mila euroan)

KAPITULUA	AURREK.	GASTU BAIMENDUA	GASTU ERABILIA (adjudikatua)	AGINDUTAK OA (exekutaturik)	ORDAINDUA	ERABILGARRI
I Pertsonalaren gastuak	10.826,46	7.656,04	7.656,04	7.656,04	7.633,20	3.170,42
	100%	70,72%	70,72%	70,72%	70,51%	29,28%
II Ondas. eta zerb. erost.	10.616,27	8.121,34	7.833,71	5.373,93	5.323,46	2.494,93
	100%	76,50%	73,79%	50,62%	50,14%	23,50%
III Maileguen inters.	20,13	10,17	10,17	10,17	10,17	9,96
	100%	50,52%	50,52%	50,52%	50,52%	49,48%
IV Transferentzia korronteak	4.832,39	3.564,73	3.560,97	3.068,20	3.045,56	1.267,67
	100%	73,77%	73,69%	63,49%	63,02%	26,23%
V Kreditu globala	0,9					0,9
	100%					100%
VI Inbertsioak	8.689,08	6.116,20	1.814,37	636,42	542,83	2.572,88



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

	100%	70,39%	20,88%	7,32%	6,25%	29,61%
VII Kapit. transferentziak	1.119,51	829,65	829,65	829,65	587,35	289,86
	100%	74,11%	74,11%	74,11%	52,46%	25,89%
VIII .Finant. aktib.	180	98,99	98,99	50,81	50,81	81,01
	100%	54,99%	54,99%	28,23%	28,23%	45,01%
IX Mailegu amortz.	311,73	236,70	236,70	236,70	236,70	75,03
	100%	75,93%	75,93%	75,93%	75,93%	24,07%
URTEALDI KORRONTEA GUZTIRA	36.596,50	26.633,82	22.040,61	17.861,92	17.430,10	9.962,68
	100%	72,78%	60,23%	48,81%	47,63%	27,22%
URTEALDI KORRONTEA + TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA	40.345,50	30.334,28	23.788,07	19.151,55	18.650,12	10.011,22
	100%	75,19%	58,96%	47,47%	46,23%	24,81%

A.4 – DATOZEN EKITALDIAK (mila euroan)

URTEA	GASTU BAIMENDUA	GASTU ERABILIA
2018	1.580,32	147,38
		9,89%
2019	3.707,13	90
		2,43%
GUZTIRA DATOZEN EKITALDIAK	5.287,45	237,38
		4,49%

B – DIRU SARRERAK

B.1 ITXITAKO URTEALDIETAN DAUDEN ORDAINDU GABEKO SARRERAK (AURREKO URTEALDIETAKOAK)

ZENBATEKOA GUZTIRA	KOBRANTZAK GUZTIRA	BAJAK	KOBRATZEKO DAUDENAK 2017-09-30ean
--------------------	--------------------	-------	-----------------------------------



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

4.769,82	1.754,09	33,05	2.982,67
100%	36,77%	0,69%	62,53%

B. 3 2017KO URTEALDI KORRONTEA - AURREKONTUA (mila eurotan)

KAPITULUA	AURREK.	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK (likidatutako diru- sarrerak)	KOBRANTZA GARBIAK (% onartutako eskubideei buruz)	KOBRATZEKO DAUDENAK (% onartutako eskubideei buruz)	AURREK. DESBIDERATZ.
I Zuzeneko zergak	7.658,25	6.910,60	5.308,51	1.602,09	-747,65
	100%	90,24%	76,82%	23,18%	-9,76%
II Zeharkako zergak	325	556,16	415,50	140,65	231,16
	100%	171,13%	74,71%	25,29%	71,13%
III Tasak eta prezioak	7.243,33	5.880,12	5.621,63	258,49	-1.363,20
	100%	81,18%	95,60%	4,40%	-18,82%
IV Transferentzia korronteak	15.409,26	11.459,68	10.990,05	469,63	-3.949,58
	100%	74,37%	95,90%	4,10%	-25,63%
V Ondare. sarrerak	138,20	110,39	107,36	3,02	-27,81
	100%	79,88%	97,26%	2,74%	-20,12
VI Inoren. errealak.	220,24	50,51	13,03	37,49	-169,73
	100%	22,93%	25,80%	74,22%	-77,07%
VII Kapit. transf.	181,20	106,34	40,69	65,65	-74,86
	100%	58,69%	38,26%	61,74%	-41,31%
VIII Finan. akt. aldak.	258,54	93,12	86,59	6,52	-165,42
	100%	36,02%	92,99%	7%	-63,98%
IX Maileguak	398,44				398,44
	100%				100%
URTEALDI KORRONTEA GUZTIRA	31.832,45	25.166,91	22.583,37	2.583,55	-6.665,54
	100%	79,06%	89,73%	10,27%	-20,94%
DIRUZAINZAKO SOBERAKINA, 2015KO LIKIDAZIOKOA	8.513,05				-8.513,05



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

URTEALDI KORRONTEA + SOBERAKINA + TXERTATUTAKO ZORDUNKETAK GUZTIRA	40.345,50	25.166,91	22.583,37	2.583,55	-15.178,59
	100%	62,38%	89,73%	10,27%	-37,62%

5.- INFORMAZIOA 2017KO AURREKONTUAREN KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEEI BURUZ, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2017KO 3. HIRUHILEKOAN ONARTUAK. (2017RBAR0035)

2017ko aurrekontuaren arauen, 4. atalean, 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako kreditu aldaketen espedientei buruzko informazioa Udalbatzarrari hiruhilero bidaltzeari dagokionez, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare batzordeak, kronologiaz ordenaturik, espedienteen laburpen honen berri ematen dio osoko bilkurari, 2017ko 3. hiruhilekoan onartuak:

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017/07/06koa, 2017ko produktubitate planaren 2. ordainketa onartzen duena, eta, horren ondorioz, inplizituki, lehenengo kapituluko kontu sailak 84.118,10 €-ko zenbatekoan handitzen direla, gastu hori diru-sarreretako “2.0600.860.000.00.01 – 2015eko extrappto. Fondoa traspasoa”, kontu-sailarekin, kreditu gaituntzaren erregimenean, finantzatu delarik.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017/07/06koa, onartzen duena 6.000 €-an handitzea “1.0500.601.151.00.00 – Nafarroa etorb. argi dorreen kentzea” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0104.202.132.00.01 – Cinemometro alokairua” kontu-sailatik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017/07/13koa, onartzen duena 1.000 €-an handitzea “1.0800.622.920.00.00 – Udaletxeko instalazioen erreforma” kontu sailaren diru kopurua, “1.0100.500.929.00.00 – Kreditu globala” kontu-sailatik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017/07/20koa, onartzen duena “1.0610.160.241.30.01 – Gizarte segurantzza-praktika ez laboralak” kontu saila sortzea, 1.500 € zenbatekoan, eta “1.0610.141.241.30.00 – Praktika ez laboralei ordainsariak” kontu saila sortzea, 8.000 € zenbatekoan, “1.0610.480.241.30.00 – Tituludun berrien praktikaldietako beka” kontu sailaren bideratutako kreditu transferentziaren bidez

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017/07/20koa, onartzen duena 8.000 €-an handitzea “1.0500.622.150.00.00 – Udal ondarrerako inbertsioa” kontu sailaren diru kopurua,



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

“1.0800.601.153.11.00.2016 – San Josepe berriro urbanizatzea” kontu sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017/07/27koa, onartzen duena 300 €-an handitzea “1.0200.480.151.00.00 – Diru laguntza muralak margotzeko” kontu sailaren diru kopurua, “1.0100.500.929.00.00 – Kreditu globala” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017/09/14koa, BNI ekimenari laguntza eman ahal izateko, onartzen duena 1.450 €-an handitzea “1.0610.470.422.00.00 – EBZ-Saiolan diru laguntza” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0800.601.153.11.00.2016 – San Josepe berriro urbanizatzea” kontu sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017/09/14koa, onartzen duena 10.000 €-an handitzea “1.0800.211.920.00.00 – Zerb. orokor. eraikineko kontserbazioa” kontu sailaren diru kopurua, “1.0800.601.153.11.00.2016 – San Josepe berriro urbanizatzea” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017/09/14koa a, onartzen duena 5.000 €-an handitzea “1.0700.226.431.00.06 – Erdi Aroko feria” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0800.601.153.11.00.2016 – San Josepe berriro urbanizatzea” kontu sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017/09/21ekoa, onartzen duena “1.0610.421.241.00.00 –Mankomunitatea-enplegu saila”, 14.383,20 € zenbatekoan handitzea eta “1.0500.721.162.00.00 – Mankomunitateko inbertsioak egiteko ekarpena”, 70.445,55 € zenbatekoan handitzea; gastu hori finantzatu da diru sarreretako “2.1000.380.000.01.01 – Mankomunitatea soberakinaren itzulketa” kontu sailarekin, kreditu gaikuntzaren erregimenean.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017/09/28, onartzen duena 10.000 €-an handitzea “1.0910.480.152.01.01 – Gazteen etxebizitza alokairuak laguntza” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0800.601.153.11.00.2016 – San Josepe berriro urbanizatzea” kontu sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

6.- 2016 URTEALDIKO KONTU OROKORREKO ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSATZEA (2017RBAR0028)

Udal Plenoak, aho batez, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Ogasun, diruzaintza eta Ondare Batzordeak, 2017ko irailaren 27an, txosten hau eman zuen:

“2016ko urtealdiko Kontu Orokorrari buruzko txostena.



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

Aurrekontu gaietan indarrean dagoen araudian xedatutakoa betetzeko, 2016 urtealdiko kontabilitate kontuak aztertu ditu batzordeak, udalarenak nabiz Iturbide Egoitza erakunde autonomoarenak. Aipatu espedienteen ondorengo dokumentuak sartzen dira: Balantzea, Ekonomia eta ondare arloko emaitzaren kontua, ondare garbiaren aldaketan egoera-orria, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, memoria, urte bukaerako kutxako izakinen kontaketa-aktak eta aurrekontu emaitza eta kontabilitate emaitza berdintzeko egoera-orria. Halaber, 2016ko aurrekontuen oinarriek xedatutakoaren arabera, kontratazio eta diru-laguntza ataletan aukeratutako laginketari buruzko kontu-bartzailearen txostena eta 2016ko ekitaldiari eragiten dioten eragozpenei buruzko zerrenda eman dira.

Kontuan izanik dokumentazio horretan ondo dagoela jasota 2016ko urtealdian bizirik izandakoa Udalaren eta Iturbide Egoitza erakunde autonomoaren arteko ibilbide ekonomikoan, eta 2016/12/31an behar bezala dagoenez jasota finantza eta ondare egoera, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare Batzordeak aldeko txostena ematen dio Kontu Orokor horri.

Edozein ere, udalbatzarrek onartu baino lehen, aipatu espedientea jende aurrean jarri beharko da, 15 eguneko epean, interesdunek aztertu dezaten eta bidezkoztat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten."

KONTUAN IZANIK urriaren 6tik 30era arteko aldiari, 2016ko Kontu Orokorari dagokion espedientea jende aurrean egon dela erakusgai, eta ez dela aurkeztu ezelako erreklamazio, alegazio edo bestelakorik legezko epe barruan.

KONTUAN IZANIK 2016ko urtealdiko kontuei buruz "ZUBIZARRETA CONSULTING, S.L." enpresak egindako auditoriari buruzko txostena, non konklusio atalean esaten duen "2016ko ekitaldiko Arrasateko Udaleko (barne hartzen dituen Udala gehi Iturbide Egoitzako Organismo Autonomoaren kontuak) Kontu Orokoraren espedientearen ez dela era esanguratsuan eragin edo alda diezaiokkeen salbuespen edo objeziorik ikusi".

Horregatik guztiagatik, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare Batzorde Informatiboak, 2016ko urtealdiko Kontu Orokorra onartzea proposatzen dio Udalbatzari.

7.- PROPOSAMENA EGITEA 2018. URTEALDIKO AURREKONTUAK ONARTZEKO. (2017DPRE0001)

Alkateak aurkeztutako 2018 ekitaldirako aurrekontuen proiektua aztertu eta eztabaidatze prozesua burutu eta gero, hasiera batean, informazio batzorde bakoitzari dagozkion kontusailak eta gorabehera nagusiak batzordeetan azalpenak emanda, eta, gero, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare batzordean jorratutako prozesuarekin, aipatu proiektua diktaminatu behar da udaleko osoko bilkuran onartzeko.

Gastu atalari dagokionez, proiektu horrek oinarria du udal sailek egindako eskaeretan eta, sarrerei dagokienez, udalak hartutako erabakietan gehi beste administrazioetatik jasotako informazioetan.



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

Hartarako emandako epean, EH BILDU, BALEIKE eta IRABAZI udal taldeek hainbat emendakin eta zuzenketa aurkeztu dituzte. Zuzenketa horiek gobernu taldeak aztertu ditu eta batzordean soilik bi (Jaietako kontusailaren dotazioa gehitzea eta Zubillaga hiltegiko inbertsioetarako ekarpenak handitzea) bozkatu eta onartu dira eta, horren ondorioz, gastu gehikuntza hori koadratzeko mailegu kopuruaren baliabidea (teorikoa) erabilia, txertatu dira aurrekontu proiektuan.

Gainontzeko emendakinekin, gobernu taldearen aldetik beste negoziazio/azalpen saiakera bat dagoenez oraindik egiteko, oposizioko udal taldeek kontsideratu dute, egoera horretan egonda, ez zuela merezi bozkatea eta, horren ondorioz, erabaki da, behin eskainitako negoziatio prozesu hori bete eta gero, udal talde politiko bakoitzak erabakiko duela ze emendakin mantentzen duen udaleko osoko bilkurarako.

Beraz, batzordean onartutako aldaketa bi horiek txertatu eta gero, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare batzordean aztertu da 2018 ekitaldirako aurrekontu proiektua, zenbateko hauekin:

2018KO EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUAK, jarri dena udalbatzarrak onartu dezan, **hogeita hamabost milioi sei ehun eta berrogeita bederlati mila eta zazpi ehun eta berrogeita hamazortzi euro eta hamazortzi zentimo euro (35.649.758,18 €)**, eta aurrekontu horretan sartuta daude **UDALAREN BERAREN AURREKONTUA**, **hogeita hamabi milioi berrehun eta berrogeita zazpi mila eta berrogeita hamazortzi euro eta hamazortzi zentimo euro (32.247.058,18 €)** eta **ITURBIDE EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA**, **hiru milioi eta lauhun eta berrogeita bi mila eta sei ehun eta hogeita lau euro eta hogeita zortzi zentimo euro (3.442.624,28 €)**.

Aipatutako proiektua (kontu sailak, exekuzio arauak eta konpromiso kredituen eranskinak barne) aztertu eta gero, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare batzordean bozkatu da. Botazioaren emaitzaren arabera, Ogasun batzordeak, EAJ-PNVko bi ordezkarien eta PSE-EEeko ordezkariaren aldeko botoekin, EH BILDU eta BALEIKE udal taldeen ordezkarien abstentzioarekin eta IRABAZI udal taldeko ordezkariaren kontrako botoarekin, proiektuari aldeko txostena ematen dio, eta osoko bilkurari proposatzen dio akordio hau hartzea:

1.- Hasiara batean onartzea 2018ko ekitaldiko aurrekontu orokorra. Barne hartzen ditu UDALAREN beraren AURREKONTUA eta ITURBIDE EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA, aurrekontu bakoitzaren exekuzio arauekin batera, eta udalaren beraren aurrekontuaren konpromiso kredituen eranskina ere bai.

2.- Espedientea jende aurrean erakustea, interesdunek aztertu dezaten eta bidezkozat jotako erreklamazioak aurkeztu ditzaten, 15 egun balioduneko epean, jende aurrean erakusteko, iragarkia argitaratzen denetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- Espedientea behin betiko onartzea, jende aurrean erakusteko, aldi horretan erreklamaziorik jaso ezean aurrekontuaren aurka.



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

A. EZKURRA (EAJ-PNV):

Bai arratsaldeon alkate Andrea, zinegotziok, jaun-andreok, gaurko osoko bilkurara hurreratu zaretenoi, arraltsaldeon beroenak.

Bueno gaurko osoko bilkura urteko azkenengoa eta benetan osoko bilkura garrantzitsua izanen da zeren eta aurrekontuak dakarkigu mahai honetara eta datorren urteko aurrekontu proposamena, udal gobernuaren proposamena, mahai gainera dakarkigu hemen aztertzeke bueno aztertzeke aukera izan dezute hemen debatzeko eta, ahal den neurrian, guk eskatzen dizuegu oantzeko.

Idazkariak irakuri duen bezala udal aurrekontuak udal gobernu honek dituen aurrekontuak 32.247.058,18 €takoak dira, ikus dezakezutenez aurreko urtearekin alderatuz 2.16ko igoera bat egon dela, igoera honen arrazoia izan da haisera batetik aldundiko foru fondotik 450.000 € gehiago jaso dituela udalak eta bestetik ICIO ezagutzen dan zergatik ere, 200.000 €tako sarrera izan dugula, bertan hortan datza aurrekontuaren igoera hau 2017arekin alderatuta.

Urtero esaten dut aurrekontu hauek plangintza finantziero bat da, hau da, lan tresna bat da guk aurrekontu hauek udal gobernuak landu egin ditugu. Hau da dauzkagun eta Arrasatek dauzkan lehentasunak kontuan izanik, dauzkagun planteamendu ekonomiko-finantzieroa uste dugu dela aproposena, errealista, oreka finantzieroa ematen diona, zuhurtziaz egindakoak eta, esan dudan bezala, egonkortasuna dela bilatzen duguna.

Guzti hau esanda baita ere azaldu behar duguna da eta urtero egiten dugu azalpen txiki hau, hau da dauzkagun 32 milioi horietatik, 10 milioitik gora gastu pertsonaletara bideratzen direla, eta 10 milioitik gora baita beste zati bat dihoala udaletxeak Arrasaten beharrei erantzuna emateko zerbitzuetara, hau da, 22 milioi inguru da aurrekontu bloke handi bat non ia blokeatuta esan dezakegun guztiak ulertzeko, blokeatuta daudenak. Hori argi geratu dadila, ze zenbakikin jokatzen ari garen. Baita ere uste dugu hauek aurrekontu solidarioak direla. Badakit ezagutzen dezutela guztiok aurreko astean komunikabideetan agertu izan da, Arrasateko udalak gizarte zerbitzuetara bideratzen dituen gizabanako bakoitzeko, hau da, pertsona biztanlego bakoitzeko 20.000 biztanlegotik gorako pertsona bakoitzeko bideratzen dan aurrekontua edo diru partida da 229 €tako. Uste dut hau berri on bat dela ez bakarrik udal gobernu honentzako, ze klaro daukagu bide hau aurreko atzeko hau da gure aurretik zeuden beste legealdi batzuetan ere bide hau jorratu dela eta hau ez da bakarrik urte bateko lana uste dugu atzetik datozen jende askok egin duela bidea markatzen joan dela eta guk ere bide honi heldu diogu eta heltzen jarraituko diogula. Beraz dinot, uste dugu berri on bat dela guztia egiña dago? Ez. Oraindik lana daukagu aurretik egiteko? Bai. Baina uste dugu bide onetik goazela eta uste dugu Arrasateko aurrekontuak bai direla solidarioak.



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

Guzti hau esanda: helburuak, esan dudan moduan aurrera eramanez proiektu egitasmoa eta lan ildoak zehazten dituzte partida guzti hauek ez aurrekontuak dauzkan partida guzti hauek. Hau da zertarako? Zertarako? Ba udal gobernu honek eta uste dut udaletxe guztiak baina gure kasuan arrasatearren interes eta beharrei erantzuteko noski, hau da, zer da guk nahi duguna? Guk nahi duguna da enplegua sustatu, gure lehentasuna zein da? Enplegua sustatzea, ongizate zerbitzu duinak izatea, beharra daukan pertsona guztien alboan egotea, eta, nola ez, Arrasatek daukan proiektu garrantzitsuei erantzun bat ematea, eta egia da udal gobernu hau sartu ginen egunetik, duela bi urte pasatxo, guk esan dugu Arrasaten, eta ez udal gobernuaren, baina Arrasateko proiektu estrategiko garrantzitsu bat legegaldi honetan dala Juan Arzamendi musika eskola eta erlojuaren eraikina, eta bai jaun andreok egia da aurrekontu guztietan partida handi bat, errekurso handi bat, bideratzen dugula horretara, hau da, poltsa bat egitera benetan, eraikin horiek ordaindu behar denean izan dezagun errekursoak horri aurre egiteko.

Eta behin eta berriz diogun bezala hau da Arrasatek daukan behar estrategikoa. Aurrekontu honetan 2018ra begirako aurrekontuak zer dauka horrela desberdintasuna, hau da, lehen aldiz guztiok adostuta eta bueno horrela izan da, aurrekontu partehartzaitarako partida bat atera dugula, guztiok adostu dugu, 250.000 partida bat sortu da. Oraindik ez daude zehaztuta, 241 proposamen dihoazte bozketara datorren astetik aurrera hau ia azalduko dugu datorren astean edo horiek dira hautatzeko, bozkatzeko egongo dira hau izan da erabaki bat guztiona, lehenengoko urtea izan da, lehenengoko urtean uste dut bideari ekin diogu aurretik ikasten joango gara, hobetzen joan gara baina benetan zorientzekoa da arrasatearren izan duten partehartzea benetan zorientzekoa. Dauzkagu 241 aukera ezberdin, herritarrak nahi izan dituzten aukera ezberdin, bozka emateko. Eta hau esanda, zeintzuk dira aurrekontu honetan 2018ra begira udal gobernu honek dauzkan prioridade edo lehentasunak, hau da, enpleguan gure enplegurako partida ia 880.000 €tik pasatu dugu 1.036.000 €tara hau da %9,37 igo da. Zergatik? Uste dugulako, udalaren gure lehentasuneko bat izan behar duela enplegua sustatzea, hau da enplegua sortzea ez da udalaren helburu bakarra, udalak aukera dauka enplegu publikoa sortzeko, bai baina udalaren xedea da udalaren helburua da harraminta jartzea programa jartzea politika ezberdinak jartzea, bai enpresak enplegua sor dezaten, hau da, kalitatezko enplegua sor dezaten, eta bide batez baita ere ekintzaleitasuna sustatu dadila, hau da erderaz ezagutzen dan moduan emprendimiento: hau da enplegua sortzen dute alde batetik enpresak, hemen dauzkagun enpresa txikiak, ertainak handiak denak; ekintzailauna ere garrantzia handia ematen diogu norbanakoak daukagun ideiekin, dauzkaten ideiekin beraien proiektua garatzeko aukera ere eman behar diogu horri erantzun bat eman behar diogu udaletxetik, eta nola ez baita ere udaletxetik aukera daukagu lanpostu publikoak garatzeko.

Orduan, hori izango litzake gure lehentasuneko bat. Bigarren bat ere hasieran esan dudana, gizarte ongizatea edo gizarte zerbitzuan behin eta berriz apostua egingo dugu, hor dauzkagu milioi bat eurotik gorako partida baita ere dauzkagun programa ezberdinak aurrera eramateko. Hau da, udal gobernu honek, beharrak dauzkan pertsona guztiei, guztiei, behar horiei erantzuna emango die.



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

Inbertsioak: ba aurretik esan dudana, bai, guretzako lehentasun haundi bat da Juan Arzamendi musika etxea eta erlojuaren eraikina. Eta horretaz gai, hor doa errekurtsio zati handi bat, bai milioi batetik gorakoa.

Baita ere, haur parkeak berritzen ari gara. Udal gobernu hau sartu zenetik, gure lehentasuneko bat baita izan zan horri erantzun bat ematea, urteak zerematen haur parke asko berriztu gabe eta 2018ra begira, Bitterikoa, Muxakolakoa, hainbat haur parke berriztuko dira. Zer egingo da baita ere? Ez dut guztiak kontatuko baina bueno, Uribarriko, Gipuzkoa Etorbideko espaloiak ere berriztuko dira, merkataritza ere sustatu nahi degu, 2017an Merkataritza Plan Estrategiko bat egin da eta plan estrategiko horren akzioak zabaltzeko ere partida bat sortu da, 2018an garatuko dana, badakite EH BILDUko jaun andreak ideia berriak aurkeztu dezute komunikabideetan. Espero degu plangintza horren baitan sartzea posible izango dela eta beste partida ezberdin asko baita ere, hori da 18.000 eurotako, beste bat 31.000 eurotako herriko merkatariekin ekintza desberdinak bideratzeko.

Hau izango litzateke, horrela, pintzelada batzuk udal gobernu honek dauzkan aurrekontuak, proposatzen ditugun aurrekontuak 2018rako. Hau da, aurretik esan degun bezala, Arrasatek egoera ekonomiko osasuntsua dauka eta, baina, zuhurtziaz jokatu behar dugu, eta nahi dugu egoera ekonomiko-finantziero hori egonkorra izan dadin orain eta etorkizunean, egia da, aurre egin behar diogula inbertsio garrantzitsu batzuri, batez ere Arrasatek benetan behar dituelako, behin eta berriz esan degu Juan Arzamendi musika eskola eta bai hirugarren aldia errepikatzen nago eta erlojuaren eraikina, zeren benetan hori da lehentasunen bat, da lehentasun bat herriarentzat eta da lehentasun bat udal gobernu honentzat, eta da lehentasun bat lehenengo egunetik guk aitortu deguna, hau da, guk klaru daukagu, udal gobernu honek klaru dauka zein den bidea, zein den norabidea, eta dauzkagun kontuak, erantzun, proposatu eta egin dira, hau da: aurrekontu hauek benetan landutakoak dira, nik bai eskatuko nizueke oposizioko talde guztiei konfidantzazko boto bat ematea aurrekontu hauei, eta baita ere gogorarzi, beno, zuekin bildu gara, zuei urriaren 28an uste dut ogasun batzordean aurkeztu zirela lehen aldiz aurrekontu hauek, gero komisioz komisio batzordeka ere aurkezten dira, hasiera batetan zuek zuen emandakiñak, nahiz eta hona bakoitzak emandakin zerranda bat daukazute, hasiera batetan bai EH, eta BALEIKE eta IRABAZI, zuen emandakin zerrenda batekin gerturatu zineten, edo aurkeztu zenuten mahai honetara, gu talde guztiekin bildu gara, talde guztiekin, pare batekin bi aldiz, eta guk adierazi izan dizuegu zuek dakartzuten emendakiñen aurrean, zein izan dan gure disposizioa eta zer den guk aurreikusuten deguna, hau da, uste det gaiñera, EH Bildurekin eta baita ere IRABAZIrekin, akordio ezberdinak onartu ditugu, emendakiñ ezberdinak, egia da ez degula aurreikusuten emandakiñ hoiek partida bat sortzea. Zergatik? Kasu batzutan partidak existitzen direlako eta gure aurreikuspenen arabera guk ez ditugu, momentuz behintzat, guk ez degu ikusten gehikuntza bat behar dutenik, zeren eta esan degun bezala, aurrekontu hauek urtean zehar ere aldatu daitezke, eta batez ere gizarte zerbitzutan, enplegurako programetan, beharra aurkituko bagenu, ba, orain gertatu izan den bezala, 2017an, 300.000 eurokin irten giñen eta momentu honetan 356.000 eurotako gastua daukagu. Eta horrela hainbat partidetan. Beharra egongo balitz, horri aurre egingo genioke. Eta guk benetan uste degu zuen emandakin batzuk onartu ditugula batez ere, uste degulako, xedea emandakiñak positiboa dalako Arrasatearrantzat, eta nahiz eta diru partida bat ez sortu horretarako, uste dugu emandakiñak daukan ekimena dala benetan zuek nahi dezutena betezea eta gu horretan guztiz ados gaude, berdin digu



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

emendakiña EH BILDUkoa, IRABAZIkoa edo BALEIKEkoa bada. Ikusten badugu benetan guk daukagu programaren baitan sartu daitezkeela, onartu daitezkeela, onartzen digutu, eta onartu ditugu.

Beno, besterik ez, esatea udal gobernu honek gaur dituen aurrekontuak, aurrekontu errealistak direla eta dauden errekurtsio mugatuekin, uste degu ahalik eta bide hoberena egiten ari garela. Besterik ez. Mila esker.

M. UBARRETXENA (LEHENDAKARIA):

Beste interbentziorik? Beno ba, orduan, osotasuneko emendakinekin hasiko gara, haundienetik, txikienera.

E. BARBERENA (EH BILDU)

Arratsalde on, danoi, egia esan, Anuska, aspaldi hontan nahiz eta fededuna ez izan, Tomás apostoluaz akordatzen naiz: iagak eta zauriak ikusi arte, ez dakit guztiz sinistu... Diñotsut azkeneko interbentzioaren harira, eh? Partiden kontuari eta hortxe sartuko naz, bueno guk beste ikuspuntu bat daukagu gure arteko negoziaketa prozesuaz. Bueno, aurrekontuak dire udal gobernu batek daukan tresnarik inportanteenetakoa, aurrekontuetan islatzen dira gobernuaren nahiak eta sinak, aurrekontu bidez gobernatzen da eta aurrekontutan agertzen ez danak, nekez edukiko du lekurik egunerokotasunean.

50 emendakin aurkeztu genituen, arlo denetan, eta udal gobernuak estimatu guztiz bakarra estimatu du 2018. Aurrekonturako, eta azpimarratuz gainera, eskaera tekniko bati erantzuten diola, eta, beno, gero beste batzutan adostasuna onartu den arren, gutxi batzutan, esango genuke, balantzea momentu honetan, minuto y resultado, eskatuko bazenigute, dela 0 partida berri egongo direla gure emendakinetatik abiatuta eta hausartzen naiz esatera oposizio osoaren emendakinetatik abiatuta ere 0 partida berri egongo direla.

Egia esan, kanpotik ikusita, partida baten garrantzia azaltzea beti ez da erraza. Partida asmo baten isla, bete ahal dena edo ez, baina argi dago, partidatan oinarritzen ez den gasturik ezin dela egin, eta partidarik gabe gutxi egiten du aurrera. Olentzerori gutun bat idaztea da, gutxi gora-behera eskaintzen ari zaretena. Olentzero maitea, bi puntu, nork, nola eta noiz landuko du gure proposamen bakoitza. Guk eskatzen duguna da nor arduratuko den, ze epetan, ea finantzazioa egongo den guztirako, eta legislaturaren azken txanpara hurbiltzen ari garen hontan, gainera are premiazkoa iruditzen zaigu. Momentu baten, irudika daiteke, badela gidoiaren aldaketa bat, ez? Iaz, 2017ko aurrekontua adosteko orduan, adosterako orduan, zeinen adostasunetara iritsi ginen, bazegoen disposizio bat, baina orain badirudi mutatu dela beste zerbaitetara ez? Delabait entzierroko zezanak ez pasatzea Santo Domingoko aldapatik, ze kasi, korralioen barruan geratu daitezela edo nolabait, al enemigo ni agua strategiaren santuren bat ikusten dugu, ze partidak garrantzia ematen zaie, memorian esaterako, laugarren orrialdean horrela sartzen da, ez? Ari zarete euskararen atalari, metodologia sortze prozesu horretan egonik, 6.000 eurotako kontu sail berri bat sortuko da



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

metodologia hori probatu, eskuhartzea gauzatu eta ekintza burutzeko. Hara, eskuhartze batzuk behar dute partida, nahiz eta esperimentazio fasean egon, eta ojo, eh, gu ekimen honen alde gaude, ez genuke nahi inolako kontrako interpretaziorik, baina bueno, badirudi, partida bat behar dela alor honetan eta garrantzitsua dela reflejatzea baina gure emendakinentzat ez.

Bueno, nork galtzen du? Gure emendakinak linboan, kasurik onenean, eta zakarrontzian kasurik txarrean geratuta? Ba guk uste dugu gure emendakiñen atzean zauden proposamenen onuradunek, azkenean subentzioen kasuan, alokairurako Arrasateko edadetuek, daukien arazoak mugitzeko, separatuek, dibortziatuek, Amaia Antzokiko langile eta erabiltzaileek, auzoetako komertzioek, Arrasate irratan hausnarketak, etorkinentzako harrera-protokoloa lantzen ari den eragileak eta kiroldegiko erabiltzaileak adibide batzuk ipintzearen. Nolabait, gure proposamenei ezetz esateko motiboek zeuk jakingo duzue, batzuk komentatu izan dizkiguzue, baina bai ikusten giñun hainbat arlotan aurrera pauso batzuk emateko modu ia bakarra zela, ikusita hezkuntzan, gazterian, komertzioen, nahiz eta orain zuk aipatu duzun komertziokoa, guk behintzat emandakinak aurkeztu genituen garaian, aurrera pauso tangible gutxi zauden.

Guk ez dugu gustoko zuen aurrekontu proiektua, eta egia esan, zuk zeu esan duzunez, bi obren legislatura, ba, hori aipatzea gurako nuke, eta prozedurari dagokionez, egia da urriak amaieran eman zitzaigula, baina niri iruditzen zait, kalendario bat markatu zela lanerako eta gero errealidadean nahiko estu ibili garela. Eta diot estu, pertsonal sailean dokumentu garrantzitsu bat bezperan entregatu zelako, eta memoria ere azken ostiralean entregatu da eta eskatzen ibili gara. Orduan... Ez zegoen arazorik gainera, astebete edo bi atzeratzeko plenoa, baina beno, zuek zuen egutegiari zor, noski, zeuon aukera da hori, baina gure gusturako, azken aldian, azkenengo fasean behintzat, nahiko estu aritu gara.

Amaitzeko, ez dugu ikusi adostasunerako benetako borondaterik, hitz onak bai eta hari batzuk zabalik bai, baina iruditzen zaigu ailegatu garela adostasunetara, orain dela bi hilabete apenas ordenantza fiskaletan konsegitu genuen eta iruditu zaigu hemen aldaketa bat eman dala. Horregatik, guk kontrako botua ematen degu, horregatik guk osotasunerako emendakin hau aurkezten dugu, iruditzen jakulako egin ginen onena dela aurrekontuak itzuli eta lanean jarraitzea.

M. UBARRETXENA (LEHENDAKARIA):

Bueno, arazo teknikoa. Lehen egon gara komentatzen zelan egin plenoaren bozketa eta gelditu gara emandakinak osotasunera egingo zenituztela talde ezberdinak, handienetik txikienera, eta gero ondoren egingo genuela bozketa. Orduan ulertzen dut interbentzioak bukaeran egingo direla, baina orduan, horrela gelditu garela iruditzen zait, orduan, hurrengo taldearen osotasunera emandakinak aurkeztera pasatuko gara, bai? Benga ba.

I. URIZAR (BALEIKE)



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

Lehenengo eta behin, arratsalde on guztioi. Bat egitea Enekok egin dauen argudioekin, denborak ez dira izan onak, ez pertsonal batzordean, ez ogasun batzordean; urtero esaten duzue ahalik eta azkarren bidaliko dituzuela proposamenak, eztabaidatu direla, eta urtero sorpresa berdinarekin aurkitzen gara, dena korrika, eta azkeneko momentuan aztertu beharra.

Aurrekontuak gobernu batek partiden bitartez aurre eramango dituen proiektuak balioztatzen ditu, aurrekontuetan islatzen ez dena, ezin da ez fiskalizatu, ez herritarren aurrean, ezta oposizioaren aldetik ere.

Bitan elkartu gara, Anuskak esan dauen bezala, gobernu taldearekin guk aurkeztu ditugun emandakinak eztabaidatzeko, baina guk negozioaketa hauen faltsutasuna salatu nahi dugu. Gobernuak hasieratik erabakita baitzeukan oposizioari ez ziola partida bat bera ere onartuko, eta horrek azkenean emendakin bat ere ez onartzea ekartzen du. Urte honetan gainera, arrasatearren arazo larrieneri aurre egiteko borondate eza larriagoa da gobernuaren aldetik, 700.000 euro gehiagorekin aurkitu baita, eta zer egin nahi du gobernuak diru extra honekin? Zer lehentasun erakutsi du? Zailtasun ekonomikoak dituzten arrasatearrei laguntza areagotzea? Gizarte lanean dabilzan erakundeak indartzea? Lan munduan areagotzen ari diren genero desberdintasunei aurre egitea? Udal zerbitzuak indartzea? Ez. Noski ezetz. Gure udal gobernuak beste lehentasun batzuk ditu, bere adreiluzko promesa elektoraletara, eta alkatetzako gastuak 850.000 eurotan areagotzea izan da gobernuak aukeratu duena.

Arrasateko langabezia zifra bailarako eta Gipuzkoako altuenetarikoa da, zuen legediaren menpean, emakume eta gizonezkoen langabezia bretxa bikoiztu egin du, zuen erantzuna bi urtetan zehar, postal eta argazki elektoralak egitea izan da. Eta hau gutxi balitz, urtearen hasieratik egin genion 2018ko aurrekontuak genero ikuspegitik lantzeko lanketari BALEIKE udal taldetik, azterketa bat eskatu genuen honen inguruan, udal politikek berdintasunean duten inpaktua hausnartzeko eta ezberdintasuna konpondu ahal izateko, hauek egunero jasaten duten biolentziak baitira emakumeentzat. Behin eta berriz saiatu gara, mozio bitartez, batzordetan proposatuz, aurrekontuetan emendakin bidez... Gobernuak hamar hilabetetan zehar erantzun bera eman digu: gaia landuko dela, baina ez dutela idatziz konpromezurik hartu nahi. Nekatu gara iada, eta gobernuari mezu bat bidali nahi diogu: ez gara etengo eta ez dugu etziko Arrasateko udalak berdintasuna aurrekontuetan islatzen ez duen arte. Askoz ere arrazoi gehiago ditugu oraingoan bidegabe eta matxistak diren aurrekontu hauek onartzeko, baina aipatutakoak uste dugu nahikoak direla.

J.L. MERINO (IRABAZI ARRASATE)



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

Bueno, arratsalde on, desde el grupo municipal Irabazi Arrasate volvemos a presentar una enmienda a la totalidad al proyecto de presupuestos del gobierno municipal de PNV-PSE, porque también este año el gobierno vuelve a perder la oportunidad de destinar el incremento previsto de los ingresos a hacer frente a las necesidades sociales que tiene Arrasate: el empleo, el aumento de las desigualdades sociales, la eficiencia energética o la protección del Medio Ambiente.

En opinión de nuestro grupo, el modelo de ciudad que el gobierno refleja en sus presupuestos ni las formas de trabajar dichos presupuestos, coinciden con nuestros planteamientos. En primer lugar, este año también la documentación o gran parte de ella nos ha llegado con retraso para poder estudiarla y analizarla adecuadamente, lo que viene convirtiéndose en costumbre, ya que los presupuestos de 2017, se actuó de un modo similar. Además, con el agravante de instalar el debate más importante del curso político en fechas de un puente festivo, algo que consideramos que no es ni mucho menos casual. En lo que una parte del equipo de gobierno, EAJ-PNV, porque el PSOE ni siquiera se ha dignado a reunirse con nosotros para estudiar las enmiendas, dicen negociar las enmiendas parciales con las demás fuerzas políticas del municipio. Nosotros lo vemos como un mero trámite por su parte, ya que no se llegan a aceptar propuestas concretas que pudieran recogerse en el proyecto de presupuestos e incorporarlas como nuevas partidas, más que una negociación lo consideramos como una charla de cambio de impresiones sin llegar a ninguna conclusión y menos a ningún acuerdo.

Entrando ya a analizar la memoria de presupuestos de 2018 encontramos algunas contradicciones, como que se dice por un lado que hay una subida considerable en relación a los del año pasado, un 2,31% procedente de las previsiones del fondo foral y por otro lado en la misma memoria dice todo lo contrario, que se prioriza la prudencia en los presupuestos porque las perspectivas de los demás recursos del fondo foral no dejan de tener un carácter provisional, dada su condición de mera previsión.

Otro tema que desde nuestro grupo lo consideramos una burla a la ciudadanía es lo que denomináis como novedad presupuestos participativos con una dotación de 250.000 euros, para que la ciudadanía decida dónde invertir, cuando el total del capítulo 6 es de 3.930.000 euros, osea que la ciudadanía va a poder decidir sobre un 6%. Desde IRABAZI, os animamos a denominarlo de otra manera, más que nada para no desvirtuar el concepto de presupuestos participativos.

En cuanto a los servicios sociales, y aunque la Asociación Estatal de Directores y Gerentes de Servicios Sociales estamos en el ranking del tercer lugar en cuanto a recursos, 229,76 persona/año, consideramos prioritario una partida de rescate ciudadano, regulada, que ofrezca soluciones de verdadera emergencia como las que se han dado este último año.

En empleo, sí, pero no. Existen varios programas y otros nuevos que se incorporarán este año, pero están lejos de nuestras prioridades, en Arrasate a día de hoy hay 1.145 personas desempleadas, 483 hombres, 662 mujeres. La mayor parte de las personas desempleadas tiene un nivel de formación



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

básico, por lo que tiene mucha más dificultad a la hora de acceder al mercado laboral. Ahí es desde la institución pública donde debemos destinar más recursos y un plan de empleo local más ambicioso, plan que no se recoge en este proyecto de presupuestos.

En relación con el Medio Ambiente o la lucha contra el cambio climático, tampoco vemos un empeño especial al respecto. ¿Qué queréis que os digamos? Si destináis seis líneas a este tema en la redacción de la memoria, con un sólo proyecto gestado en la mesa de medio ambiente, ahí se ve la importancia que da el equipo de gobierno al medio ambiente y a la sostenibilidad.

Comercio y turismo, en fin. Parece ser que EAJ-PNV han encontrado la fórmula mágica para impulsar, según ellos, el comercio en el pueblo, deleitándonos con 22.000 euros en bombillitas y patinándonos por 26.000.

Desde IRABAZI ARRASATE consideramos que estos presupuestos no son el reflejo de las necesidades de las vecinas y vecinos. Estos presupuestos son continuístas, siguen los mismos patrones que los presentados en ejercicios anteriores, tanto en cuanto a los criterios de reparto económico como a la priorización al estructurar el gasto en cemento: Juan Arzamendi Musika Eskola y Kulturola, y no centrarse en lo social, en definitiva, no son unos presupuestos que miran a las personas, sino un mero trámite para tratar de cubrir el modelo de gestión histórico del PNV apoyado por su socio de gobierno de manera idéntica y cómoda, por todo la cual, presentamos esta enmienda a la totalidad.

M. UBARRETXENA (LEHENDAKARIA):

Bueno ba, orain bai, interbentzioen txanda irekiko dugu. Interbentzioak?

A. EZKURRA (EAJ-PNV)

Banaka gauza batzuk erantzungo dizuet, beste batzuk orokortasunean.

Barberena jauna, zuk esan duzu, nik uste dut, zuk esan duzu esaldi bat guztiontzako balio duena: es que ikuspuntu ezberdinak dauzkagu eta hori egia da, eta hori egia da. Zuk gainera esan duzu, eta beste oposizioko alderdiak esan dute, zuek esaten zenuten 50 emendakinekin etorri zinetela, egia da, zuek etorri zineten beste, BALEIKEk uste dut 13-15ekin, 30 batekin IRABAZIk eta, hau da, aurrekontu guztiak zuek egiten zenituzten emendakinetan partida gehikuntza batzuk eta aurrekontu guztietan, hau da, leku batetik jartzeko beste nonbaitetik kendu egin behar da. Eta guztiek, hiru alderdiek, kentzeko aurreikusten zenuten zuen proposamena hirurek, EH BILDUK, 663.000 euro kentzea, Joan Arzamendi Musika Eskola eta Erlojuaren eraikinetik; IRABAZIk, berdin, BALEIKEk,



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

berdin, bakoitzak diru... batek 330.000, bestean berrehun eta piku mila... Nik ere ikusi ditut zuen emendakinak. Orduan, gure ikuspegia desberdina da. Zuek proposatzen zenutena da zuen emendakinen gehikuntza, hau da, kentzea guk uste duguna benetan Arrasaterentzako lehentasuna dela, que no es cemento, Sr. Merino, me he aburrido de escuchar la palabra cemento. Parece el cuento de los tres cerditos: cemento, lastoa... benetan. Kulturaren aldeko proiektu bat dela, noiz sartuko zaizu buruan? Arrasate Musikal, Goikobalu, kultur eragile guztiak, behin eta berriz azaldu dugun proiektu bat da. Da Arrasatearren beharretarako proiektu bat, kulturak behar du benetan bultzada bat herri honetan. Eta guztiek, zuen ikuspuntua zen, proiektu horietatik dirua kentzea eta zuen emendakinetan gehikuntza bat zuek egiten zenuten. Hau da, Barberena Jauna, zuk esan duzu guk uste dugu gure ustetan bai adostu gara, ulertu garela bederatzita puntutan daukat nik hemen apuntatuta eta egia da beste jaietako esparru batetan 22.000 eurotako gehikuntza bat, hori barneratuta dagoela ia aurrekontuetan eta bai guk behin eta berriz esan dizuegu, zuek proposatzen zenuten partida asko badaude, existitzen dira, ez denak, ez denak, asko existitzen dira. Emendakinak berbegiratu bagenitu askotan gehikuntzak eskatzen dituzue, eta hori guztientzako dinotzue, eta gehikuntzak eskatzen badira da partida berez existitzen dela, guk esaten dizueguna da: urte hasieran zuzentziaz jokatuaz, hau da gure aurreikuspena, hau da, gure aurreikuspena, guk egiten diogun argazkia, benetan gaia landu dugulako. Zuek baita, ez dut esaten zuek ezetz, eh? Nik esan dut guk proposamen egiten dizuegunean landuta dakarkigun dokumentua delako, landuta dauden aurrekontu batzuk daudelako eta hau da gure argazkia. Eta gero, urtean zehar, batez ere lehentasunetan, gizarte zerbitzutan, enplegetan, Urizar jauna eta Merino jauna, askotan hitz egiten duzue eta badirudi aurretik nik esan dudana, ez duela existitzen. Aquí cada uno cuenta su libro. Baina benetan.

Enpleguko datuak: egia da Merino Jauna, eskertzen dizut datuak ekarri dituzula mahai gainera. Atzoko datuak dira, eta nik beste bat esango dizut: gaur duela urtebete Arrasaten geneukan 1.339 langabetu, gaur daukagu 1.145. Eta asko dira. Noski baietz. Gustatuko litatuko litzaiguke ez egotea langabetu bat bera ere Arrasaten, baina uste dugu bide onetik gabiltzala, lanean ari garela, enplegurako noski daudela programa oso garrantzitsuak herri honetan. Hau da, enplegu sustapena, 15 pertsona kontratatu dira urtean zehar karrera bukatzeko proiektutarako, 5 praktika alditan lagundu da, lanera prestakuntza, laneratzeko zailtasunak dituztenei zuzendutako programak, enpresentzako laguntzak herriko langabetuak kontratatuzko, ikasten duten langabeentzako dirulaguntzak, enpresa berriak sortzeko laguntzak, ekintzailetasuna sustatzeko, dibertsitate funtzionala daukaten pertsonen gizarteratzen laguntzen dauden programak... Guztira, 1.600.000 eurotik gora bideratzen da, barkatu, enplegutaz ari nintzen, barkatu, milioi bat, milioi bat pasatxo, 1.632.000 gizarte zerbitzutan da. Noski, enplegua sustatu nahi dugula, eta hori da gure lehentasunetako bat, eta hortan ari gara. Gehiago egin dezakula? Goazen guztion artean, goazen lanketa hori egiten guztiok elkarrekin. Goazen guztiok elkarrekin lanketa hori egiten. Merino Jauna, nik entzuten zaitut, eta badirudi udal gobernu honek edo Arrasateko udalak enpleguaren alde ez duela ezer egiten, eta gauzak ez dira horrela, Merino Jauna, ez dira horrela eta zuk badakizu. Badakizu, Merino Jauna. Bidea egina dagoela? Ez. Gehiago landu behar dugula? Bai. Ez dugula Arrasaten langabeturik nahi, bai. Baina horrek ez du esan nahi aurrekontu hauek ez diotela langabetuei begira eta aurrekontu hauek langabetuei bizkarra ematen diela. Ez da egia. Merino Jauna, ez da egia.



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

Gizarte zerbitzutara joango naiz orain. Paperak ekarri ditut gaur. Gizarte zerbitzutan, nik eman dut datua eta zuk ere eman duzu, 229 euro bideratzen dira aurrekontu hauetatik biztanleko. Eta hemen ere, Urizar Jauna, berriz ere zuri entzunda, badirudi, gizarte zerbitzutara ez duela... Faltsuak. Faltsuak? Hor daukazu partida danak, zuk ere ezagutzen duzu. Gizarte zerbitzuetako programa ezberdinak. Gogoratzen dizut udal gobernu honetan gurekin sartu zinela, eta udal gobernu honetan gizarte zerbitzuetako arduraduna zuek izan zinetela lehenengo hilabetetan, programak ezagutuko dituzue, ziur naiz. Ziur naiz baietz. Eta hor daude masterkeriak egiteko programa ezberdinak, AEstarako, AEstarako aurreikuspena egin zen 2017an 300.000 eurotako, azaroaren 30era arte ia 356.000 euro bideratu dira. Zergatik? Behar bat ikusi delako eta udal gobernu honek, beti esan dugun bezala, konpromezua daukagu beharra daukaten pertsonekin eta orduan, proiektu aldaketa bat egiten da eta bideratzen dira errekursoak. Beti ere, kontutan izanda errekursoak mugatuak direla. Guri ere gustatuko litzaiguke milaka eurotako aurrekontuak izatea, eta bideratuko genuke gizarte zerbitzutara, enplegua sustatzera... Azken finean, guztiok nahi dugu berdina. Jaun andreok, guztiok nahi dugu berdina. Babes jabetasun egoerako familiar eskuhartzetarako, 253.000 eurotako diru laguntzak, prebentzio komunitario... Bueno, esaten ari naizen gaiak zuek ezagutzen dituzuela badakit baietz, drogomenpekotasuna prebentziorako 30.000 eurotik gora, gizarteratze programak 10.000 euro, tutoretzapeko etxebizitzak, tutopetzapeko etxebizitzetan geneukan aurreikustia 33.500 euro 2017an, baina benetan beharra dagoenez esparru horretan, gaur egun ia 43.000 euro bideratuta dago programa horretara, beharra dago, eta beharrari erantzuten zaio.

Hau da, jaun andreok, guzti honekin jaun andreok esatera noana da, batez ere Urizar Jauna eta Merino Jauna, zuei entzuten dizuedanean hitz egiten badirudi enpleguaren alde eta gizarte zerbitzuen alde udal gobernu honek ez duela ezer egiten eta ez da horrela, ez da horrela. Eta zuek badakizue. Guri ere gustatuko litzaiguke errekurso finituak ez infinituak izatea baina errekursoak mugatuak dira, mugatuak dira. Mila esker.

J.L. MERINO (IRABAZI ARRASATE)

Sí, parece que le voy a felicitar a la intervención de la señora portavoz de EAJ-PNV porque ha estudiado muy bien el discurso. Lo que no ha estudiado ha sido, lo que no ha puesto es atención a lo que ese ha dicho aquí, ¿no? Nadie ha dicho que no se hace nada, ¿eh? Absolutamente nadie ha dicho que aquí no se hace nada ni en empleo ni en servicios sociales. Lo que sí decimos es que no se hace todo lo que se debería de hacer. Esa es la cuestión. Ahora puedes cargar como quieras, para desautorizarnos o para algo más, pero nadie ha dicho eso.

Lo que estáis centrados es, sobre todo, en el empleo, no es a las personas que más lo necesitan en este pueblo, de las 1.145, como he dicho antes, la gran mayoría, 662 son mujeres, cuatrocientos ochenta y tantos son hombres, y son de un perfil que no tienen cualificación y, para esos, apenas hay un programa, sí, para (...) de parados, pero para esa gente, es lo que planteábamos cuando nos juntamos con vosotros en las enmiendas parciales, lo que planteábamos era eso, un plan de empleo local sobre todo para esta gente, ¿no? Para esas personas que lo necesitan igual que los demás. Que son las que más difícil lo tienen a la hora de acceder al mercado laboral.



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

En cuanto a servicios sociales, sí, claro es verdad, que el ranking éste lo han dicho los directores y gerentes de servicios sociales, que estamos los terceros, y yo me alegro de que estemos así, pero igual no se destina todo lo... igual estamos en el ranking pero no es suficiente. O no se destina adecuadamente esos recursos. Nadie está diciendo que no se hace nada. Se hace. Pero no lo suficiente.

E. BARBERENA (EH BILDU)

Bueno, ez duguna onartuko da, Anuska, gu kulturaren etsai moduan aurkezterik, eta hori hasieran zure interbentzioa holaxe hasi duzu, egiaren erdia kontatuz. Eta zein da beste erdia? Argazkia osatzen laguntzen dauena. Aurrekontuan nahiko ajustatua zen partida berriak sartu eta beste batzuk kentzeko eta gure proposamena zen, aurreikusten da soberakin bat egongo dela, ez? Imaginatzen dut. Eta soberakin hori aurreikusten da otsaila edo martxoan jakingo dugula eta aurreikusten da soberakin hortatik nolabait geratuko dela diru kopuru bat erabilgarri udalarentzako. Guk planteatzen genuena zen, guri interesatzen zaigu partida batzuk exekututzea urtarriletik aurrera, urte osoa edukitzea programa horrek gauzatu ahal izateko. Kulturola eta Juan Arzamendin kasua, iruditzen jaku dirua orain edo martxoan bideratu, nolabait, antzerako parecido izan leikela, efektu praktikoei begira. Hau da, guk ez genbiltzan esaten dirua kentzea horri, baizik eta orain jasoko ez den diru bat, gero jasotzeko aukera ematea, eta iruditzen jaku eta iruditzen zaigu horrela argazki orokorrago bat ikusten dela, ze beste aukera da zorpetzea, eta izan leike, gaur egun, zorpetze kontrolatu batek ez dauka zertan txarra izan, eduki geinke zorpetze bat, nolabait, manejeablea dena eta beharrekoa egitasmo ezberdinak aurrera eramateko. De hecho esango neuke, epe ertainera kiroldegiaren obra eta beste gauza batzuk aurreikusten badira, seguramente zorpetzearen aukera mahai gainean ipini beharko dela.

Gero, partidaren gehikuntzak, partida berriak, nik jarraitzen dut esaten adostasun batzurena hitz egin zela modu zehatzgabean, baina horra eraman zen gauza bakarra izan zela jaietakoa. Beste bai, bilduko gara, landuko dugu, aukerak daude. Behintzat, gure interpretazioa hori da, egin duguna eta agian ikuspuntu kontua da.

Eta amaitzeko, enpleguaz ari gara hitz egin eta hitz egin, nik ez daukat arazorik aitortzeko eta Juan Carlosi ere batzordetan ere aipatu izan dotzat, gure enplegu programa asko interesanteak dira, baina ni kontuz ibiliko nintzen baita mezu triunfalistekin: gure arazoa da programa asko ez direla guztiz erabiltzen eta geratzen dela diru bat erabili gabe eta iruditzen jat bi buelta eman behar dotzagula nola iritsi hartzileengana, nola enpresa horrek baliatu gure laguntzak... Orduan, nik uste dut hemen erdibideko mezu bat topatu behar dugula, enpleguan gauzak egiten dira, baina gure erronka da, planteatzen dugun partida horren jasotzaileek erabilgarritasun handiagoa edukitzea eta nolabait



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

planteatzen dugun subentzio lerro eta bestelako laguntzak enplegutuan gauzatzea, ze hori da benetako erronka. Ez dela samurra, eh? Baina guri iruditzen jaku erronka hori dela orduan guk apur bat tonua errebatutuko geunke, triunfalistegi izan gabe eta fatalismoan erori barik ere.

O. GARCÍA (PSE-EE)

Bai, arratsalde on guztioi. Habíamos decidido al principio del pleno que, en cierta lógica, fuese Anuska la que defendiese los presupuestos para el 2018. Yo, simplemente tomo la palabra por alusiones, del señor Juan Luis Merino, en el cual ha dicho que el partido socialista no se dignó a sentarse en una reunión para discutir sus enmiendas. Bien, no es cierto Juan Luis. No sé si te llegó o no te llegó, pero yo, y mis compañeros, ninguno de los tres podíamos reunirnos el día que tú sí podías, y creíamos más importante no transtornar tu trabajo, por tus horarios y demás, que en fin, estaba hablado con mi socio de gobierno la postura que íbamos a adoptar, y nos parecía razonable excusarnos y no asistir, porque no podíamos, no porque no quisiéramos.

Y luego podríamos entrar en la segunda parte. Yo hasta un día antes de que me dijese que nos podíamos reunir contigo para discutir tus enmiendas, la única respuesta que tenía por tu parte, que tengo un e-mail que así lo acredita, es “no me quiero reunir con nadie, no quiero discutir las enmiendas, me contestáis por escrito y me lo colgáis en la puerta”. No sé si estoy equivocado, pero tengo un mail que lo acredita, entonces, claro, el último día y a última hora pides reunirte con nosotros, nosotros nos hubiésemos reunido de mil amores contigo, y hubiésemos discutido sobre el bien y sobre el mal, el sexo de los ángeles y lo que hiciese falta, pero es que el día que tú proponías no podíamos y creíamos que merecía más la pena avanzar en la negociación que el estar presentes porque lo teníamos hablado con nuestro socio de gobierno, simplemente para que la gente lo sepa también.

I. URIZAR (BALEIKE)

Bai ba, bi gauzatxo mahai gainean jartzea, ez? Alde batetik, pixkat Enekok esan dau. Guk ez dugula proiektu kulturala eta ez musika eskolako proiektua ez gauzatzea nahi, baizik eta soberakinak erabiltzea eta bitartean guk interes eta lehenasun politiko bezala daukagun proposamen batzuk aurrera eramatea. Gogoratzen dotzuet aurreko urtean aurrekontuetako partidari, bai kulturala eta bai musika eskolako partidari gehikuntza 1,5 milioitakoa zela baina soberakinetan, 2016ko soberakinekin, 3 milioi gehiago gehitu zotzazuera proiektu horiei.

Guk proposatzen duguna antzerako gauza bat egitea da, gure proposamenak aurrera eramateko, eta Anuska, komentatu duzu gustatuko litzaizukeela baliabide gehiago edukitzea leku gehiagotara heltzeko ez? Ba hurrengo urtean, oraingoan 700.000 euro gehiagorekin aurkitu gara, eta adibidez proposatzen da hurrengo urterako gizarte zerbitzuetako destinatuko den porzentaia gutxiago izatea,



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

ze oraingo urtean aurrekontuaren %7a gizarte zerbitzutura dago jarrita eta hurrengo urterako perzentil txikiagoa proposatzen dozue.

A. EZKURRA (EAJ-PNV)

Bueno amaitzeko, bueno nire asmoa ez da izan, eta hasieratik gainera esan dut, ez da izan argudio triunfalistak izatea, bakarrik jarri dotena da mahai gainean datuak. Gainera hasieratik esan dut bai, langabezi tasa bat daukagula, %11tik beherakoa, lortu dela Arrasaten jaitea %11tik beherakoa, baina oraindik bide luze bat daukagu egiteko. Orduan ez da triunfalismoa, bakarrik batez ere esan dut, bai Urizar Jauna eta Merino Jaunaren aurreko argudioak ikusita eta zuen adierazpenak erantzutearren izan zela, baina ez doaz triunfalismoarekin. Badakigulako bide bat egiteko daukagula, bai enpleguan eta, bat nator zurekin, Eneko, dauzkagulako programa ezberdinak eta gizarte zerbitzutan ere gertazen zaigu, programa batzuk ba, batzutan, errekurso guztiak ez direla gastatzen. Egin behar duguna, eta hori aurreko urtean ere berdina esan genuen, egin behar duguna ondo da, dagokion batzordetan, enpleguan, gizarte zerbitzutan... ondo aztertu zer programa daukagun, zeri ematen diogun erantzun egokia, agian beste zerbaitekin, beste zerbaiten horrelako programa bideratu daitezke. Emakumearen kontua egia da. Mahaigain honen ez dut esan aurrekoan, baina hau ere, zuek ezagutzen duzue, daukagun diru laguntzetan, enpleguan, adibide gisa, ekintzaletasunean, emakumea izaten bada, diskriminazio positibo bat dago, eta diru laguntza handiagoa da. Zergatik? Egia delako zuk esan duzun bezalako datuak kontutan izanik, langabezi tasa handiagoa da zoritxarrez, emakumeetan. Eta egia da daukagun programa bi edo hirutan gutxienez, baten ekintzaletasunean eta besteren batzutan baita, emakumeak izanda, diskriminazio positiboa dago. Eta hori ere lehenesten jarraituko dugu, zeren eta langabetuen kolektibitate gehien sufritzen dutenak, horrela izateko, beti dira, zoritxarrez emakumeak eta gero 50-55 urtetik gorakoak. Eta helduentzako baita badaude programak. Gehiago landu daitezkeela? Bat nator Enekorekin. Uste dut hor lanketa bat daukagula aurretik, bai enpleguan eta baita gizarte zerbitzutan ere, eta gizarte zerbitzuetan berriz diotena: porzentailetaz ari zara. Guk igoera handia, %6 - %9, Anderrek zuzenduko dit (enpleguan barkatu, ez, aurreko urteetan, sortu ginenetik), gizarte zerbitzutan egin da igoera handi bat, eta hau da benetan aurreikusita daukaguna da milioi bat pasatxo, baina esaten dizuedana da urte bukaeran, nahi baduzu, hitz egiten dugu eta benetan ikusten dugu zenbateko errekursoak bideratu diren.

Betiere, eskuak zabalik, lanketarako prest, enpleguan, gizarte zerbitzuetan, zuk nahi duzuenetan.

M. UBARRETXENA (LEHENDAKARIA):

Orain, bozkatzera pasatuko gara.

EH BILDU, BALEIKE eta IRABAZI udal taldeek aurkeztutako osotasunerako emendakinaren bozketa bateratua:

Bertaratuak	21	
-------------	----	--



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

Aldeko botoak:	10	EH-BILDU (7), BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak:		

Beraz, ez onartua.

EH BILDUREN EMENDAKIN PARTZIALAK, 2018KO AURREKONTU PROPOSAMENARI AURZKEZTUA

1. 1-12-00-622-340-00-00 “KIROL SAILERAKO INBERTSIOAK” PARTIDA HANDITZEA, 250.000 EUROKO KOPURUAREKIN (+50.000 E)

E. BARBERENA (EH BILDU)

Arratsalde on, bueno ba, gaur egun, 200.000 euroko partida bat dago kirol sailerako inbertsiotarako eta guk planteatzen dugu sail hau igotzea, kontutan izanda besteak beste, eta hemen bai dago adostasuna, hainbat lan egin beharrekoak direla, Mojategiko zelaia, Iturripeko lurak ere behar dauela itxuran berritze bat, iudoko eta tatamia, Uarkapeko bulderreko koltxoneta eta presak... Nolabait, eta hemen egon ginenean gobernuarekin, azaldu zozkuen nolabait aritmetikak eta 200.000 eurokin nahikoa izango zela; baina, ibili gara egiten errekuentoa, egon gara begira batzordetan komentatu izan ditugun gauzak, adibidez Iturripeko ur-bero sistemak aldaketa bat behar du, nahiko egoera petralean dago, apur bat ustelduta, eta gutxi gora-behera 50.000 eurotan estimatzen du, paddleko pistak ere nahiko egoera arriskutsuan daude... Nola gero, Zigarrolan bebai, kiroldegian, alde lehorreko ura batzutan ez da nahiko berotzen, edota larregi berotzen da eta ez da egoten nahikoa ur dagoenean okupazio handia aldagelatan eta hementxe egon daiteke alde batetik zalantza ea kiroldegi berria itxarotea interesantea den, baina guk ikusten duguna da kiroldegi berria, etortzekotan, hiru lau urte barrura arte, estimazio bat da, eta bai ikusten duguna da, planteatzen dugun mantentze-lanak amortizatu ahal direla. Noski ez da etorriko Denis Itxaso argazkirako baina lan interesanteak iruditzen jaku, eta horregatik planteatzen dugu igotzia partida.

A. EZKURRA (EAJ-PNV)

Beno egia esan, aurretik egin dugun esposizio guztiakin pixkat gure ikuspuntua adierazi dugu, ez? Emendakinei dagokienez. Eneko, gai honetan zuk eman duzu erantzuna. Gai honi buruz hitz egin genuen, eta egia da guk gure aurreikuspenetan uste dugu 200.000 euro doiala, egia da lehentasuna



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

2018rako batez ere lehentasunak direla bai Mojategiko kanpo futbola eta iturrepeko lurak aldatzea, bulderra aldatzea eta... Ba guk daukagun argazkiarekin eta daukagun aurreikuspenekin, uste dugu diru horrekin heltzen zaigula. Egia da, zuk esan duzun kiroldegian aurre proiektu bat egiteko hor aurrekontu bat baita partida bat ere sortu dela, ze egia da ikusten dugula hori baita izan leikela epe ertain-luzeko gai bat, ze egia da daukagun errekurtsioekin zuhurtziaz jokatuaz eta errealistak izanda, eta gure aurrekontuak errealistak izan nahi dute, ba uste dugu horrelako proiektu anbiziosoa agian aurrerago bete daitekeela, baina legealdi honetarako, urte honetarako, barkatu, hasiera batetan behintzat, guk espero dugu 200.000 euro honekin inbertsionetarako nahikoa izatea.

E. BARBERENA (EH BILDU)

Bale, ados, orduan, ikusita epe ertain luzez hitz egiten ari garela eta, bueno, ari garela estimazioen joku baten, goazen Olentzeroren karta zehaztera: prest egongo zintaten beharra izan ezker, behar diren mantenu eta obra lan horrek egitera? Ze, azkenean, horixe ari gara eskatzen, badaudela hor inbertsio batzuk egin beharrekoak eta partidak igo eta jaitsi ahal badire, eta hori horrela da, kreditu aldaketa bidez, goazen horixe zehaztera.

A. EZKURRA (EAJ-PNV)

Gai honetan Eneko, Ander da kiroltako zinegotzia eta ondo baderitzozu berari pasatuko diot hitza.

A. GARAY (EAJ-PNV)

Bai, bueno, kirolaren gainean gure lehentasuna izan da hasieratik, uste dut hobekuntzak egon direla, urtero-urtero 200.000 euroko aurrekontua egon delako inbertsionetan, 100.000 eurotatik 200.000 eurotara igo gauen eta egon zen, aurten beste 130.000 euro igo da klimatizazio sistema aldatzeko eta guk badaukagu ia prioritateak eginda, pixkat planteatuta zer behar daukan kiroldegiak eta benetan ulertzen dugu kirol sailetik 200.000 euro errealista dela eta nahiko dela. Behar, behar? Bueno, ba 20 milioi euro seguramente guztita aldatzeko, baina prioridadeen aldetik nik uste dot 200.000 euroekin oso errealista dala aurtengo inbertsionetarako, jakinda aurreko bi urteetan beste 400.000 euro inbertitu direla inbertsionetan.

M. UBARRETXENA (LEHENDAKARIA):



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

Orain, bozkatzera pasatuko gara.

EMENDAKINAREN BOZKETA

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	10	EH-BILDU (7), BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak:		

Beraz, ez onartua.

2. AURREKONTUETAN GENERO INPAKTUA EBALUATZEN HASTEKO PARTIDA BERRIA SORTZEA - 20.000 €

E. BARBERENA (EH BILDU)

Hemen, onartu beharra daukagu Eva izan dela gaia egon dena lantzen batzordeetan, ekarri dauena mahai, apur bat asuntua eta geuk onartzen diogu inizatiba hori eta, eñ baten, emendakin hau da apoiatzeko, ez? Teknikariak azaltzen dute egitasmo honetan sartzea hiru urtetako plan bat dela, aurreko legegaldian Juan Carlos Izagirren taldean ipini zuen martxan hiriburuan, eta hiru urtetako prozesu honek eskatzen dau gaian adituak diren perfilak eta lan ordu batzuk eskaintzea. Momentu honetan ziurrenik emakume etxeokuan ez dauzenak. Guk zergatik sartzen dugun emendakina? Iruditzen zaigu hiru urteko prozesua abiatzeko urte aproposagoa dela hau 2019a baino, hauteskunde urtea delako eta ez da ezer abiatzeko akaso urterik onena. Guk uste dugu plenoan adostasun zabala egoten bada gaiaren inportantzia, 2018an hasi geinkela eta lege aldetik nolabait faltan dagoen tartea aprobetxatu eta ez atzeratzen joan, ziurrenik 2020ra arte. Guk eskatzen dugu sortzea partida horregatik, behar dalako adituak, bai genero kontutan eta gero baita ogasunean, eta ziurrenik lan orduak be ezinbestekoak izango direlako.

A. EZKURRA (EAJ-PNV)

Bueno, kasu honetan zuk gainera baita Eneko ikusten dut etxeko lanak eginda ekarri dituzula eta berdintasuneko teknikariarekin hitz egin duzula baita eta beno, erantzuna zuk eman duzu eta bueno, erantzuna zuk eman duzu: gai hau epe, ba hiru-lau urtetako lana da, guk, prest gaude lanari ekiteko, berriz diot ez dugula ikusten partida gehikuntzarik, zeren eta aurretik esan dugun bezala: leku batetik jartzeko beste nonbaitetik kendu behar da. Zuek baita ere, zuen bederatzi emendakinekin, 395.500 euroko gehikuntza proposatzen duzue, hemen ez dut ikusten nondik kendu nahi duzuen. Lehen hitz egin duzu zorpetzeataz, ba egia da gu zuhurtziaz jokutzen ari gara eta guk ez dugu aurreikusten zorpetzea. Eta soberakinaren kontua ikusiko dugu maiatzean edo etortzen da pleno honetara,



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

maiatzeko gai bat da. Zuhurtziaz jokatu nahi dugu, ez dugu orain aurrekontu hau zabaldu nahi, ustezko soberakin bat eta gauzak ondo badoaz egia da hori posible izango dela; ba orduan agian udal gobernuaren erabakia izaten da soberakina nora bideratu, baina agian hitz egin dezakegu zer gauzataz, ze gauza berri edo dauden partidak kendu daitezkeen, baina bueno, hori, heltzen diogula gaiari baina ez dugula partida gehikuntzarik ikusten.

Dena dela, igual hurrengokoetarako baita bai eskatuko nizuke Eneko, agian, aurretik esan didazun argudioarekin jarraitzen duzue, soberakin hau nora bideratzen duzuen, gehikuntza hauek, aurrekontutan proposatzen dituzun gehikuntza hauek, nondik kentzen dugun, nondik. Mila esker.

E. BARBERENA (EH BILDU)

Aurreko asteko ogasun batzordean erabaki zenean jaietako partida 22.000 euro igotzea. Anuska, nondik hartu zen diru hori? Nola bideratu zen? Ez, diot, ari zarenez niri galdetzen.

A. EZKURRA (EAJ-PNV)

Ez, orduan oraindik aurrekontuak, guk proposatzen genituen aurrekontuekin jokutzen ari ginen, eta orain hona dakarkiguna, daukagu ia aurrekontu itxiak, guk hona proposamen bat ekarri behar dugu, hau horrela da, gaur da eguna non hemen, sarrerak eta gastuak mahai gainean jarri behar diren, orduan genbiltzan gure artean egiten gehikuntzak eta itxierak, eta hori da gure proposamen. Nik zuri esaten dizudana da zure proposamena nondik kentzen duzun, guk gure etxeko lanak egin ditugu lehenago, ba bai, beste nonbaitetik kendu behar izan genuen, noski.

E. BARBERENA (EH BILDU)

Nire etxekolanak eta dauden moduan azalduta gure emendakinen orrian, badakizu daudela ointxe kendu eta gero soberakinetatik hartzera. Jolasa da, zalantza gabe. Eta ez dakit hau den jolasteko eremua. Iruditzen jatena da zuek ere ez duzuela argi esaten. Ekimen hau egiteko orduan ados bazaude, emakume sailean dauden partidetatik abiatzeko, nondik kentzen duzue? Ez? Ze, zerbait jartzeko, nonbaitetik kendu behar da. Eta partida gehikuntza edo aldaketa gabe egitasmo berri bat egin behar bada, esan nahi du, zerbait ez dela egingo. Ez?

M. UBARRETXENA (LEHENDAKARIA):



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

Orain, bozkatzera pasatuko gara.

EMENDAKINAREN BOZKETA

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	10	EH-BILDU (7), BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak:		

Beraz, ez onartua.

- 3. 1-09-10-480-152-01-01 “GAZTEEN ETXEBIZITZAK ALOKAIURUAN LAGUNTZA PROGRAMA” PARTIDARI IZENA ALDATZEA ETA B ATALA SORTZEA KOLEKTIBO BERRIEI AUKERAK EMANAZ- 40.000 €**

E. BARBERENA (EH BILDU)

Bueno, hauxe aurkeztu zenean ekimena batzordean, gazterian, nolabait emateko subentzio bat etxebizitza alokairurako, guri ideia ona iruditu zitzaigun, baina batzordean bertan ia aipatu genuen komeniko zela epe ertainera bestelako poltsa batzuk eta bestelako hartzaile batzuk kontutan hartzea. Ia pasatu da urtea, edo urte eta piku horixe martxan ipini denetik eta guk dakarguna izan da beste herri batzutan martxan dagoen dirulaguntza alor bat. Guk, guri kasu honetan, Azpeitiko eredia ekarri dugu, Azpeitiako eredia atsegin dugu baina Hernanin eta beste leku batzutan martxan dagoena da, alokairurako laguntzak ematea 70 urtetik gorakoei, ezinduen, separatuei, bestelako laguntza behar duten kolektiboei.

Zergatik honetarako? Eta badakart esaldi bat pleno honetan esan dena, beharra duten guztiei erantzungo die gobernuak. Bueno, guk hemen behar batzuk identifikatu ditugu, ez direnak sartzen gaur egungo diru laguntzen hartzaile gisa espreski eta guk eskatzen duguna da ikusmira hori, zabaltzea. Zergatik? Uste dugulako politika ezkertiar eta sozialetan urratsak ematen jarraitu behar dugula eta nolabait plenoaren bi herenak aurrerakoiak garen honetan, horrelako politika aurrerakoiak bultzatzea ere inportantea iruditzen zaigula. Ez da estimatua izan, ez da estimatua izan, ez da ere ez lanketarako ikusi, orduan ezetzkotzat jotzen dugu eta horregatik dakargu plenora, zergatik Arrasaten ez da posible Azpeitian posiblea dena.

M. UBARRETXENA (LEHENDAKARIA):



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

Orain, bozkatzera pasatuko gara.

EMENDAKINAREN BOZKETA

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	10	EH-BILDU (7), BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak:		

Beraz, ez onartua.

4. KULTUROLA EGITASMOKO KULTUR TALDEEN DINAMIZAZIORAKO PARTIDA SORTZEA, 20.000 €

E. BARBERENA (EH BILDU)

Egin zenean parte-hartze prozesua Kulturola eraikinaren gainean ondorio bi zeunden, besteak beste. Bata zen obra ipintzea martxan, zeren akusatu zitzaigun ez dugula babesten, eta ez da horrela, baina bazeuden beste bat zela, gaur egungo Arrasateko kultur bizitza ikusita eta diagnostiko bat egiten zen interesantea izango zela proposamen berriak sortzeko sinergiak egotea ekimen komunitararako igurtzixak estimulatzea, ondo egongo zela egotea pertsona bat hortara egongo dena. Guk uste duguna da eraikinak inportanteak direla edozein egitasmo aurrera eramateko orduan baina eraikinak bakarrik ezin dute urrats kualitatiborik eman. Guk uste dugu eraikin berri batek aukerak ematen dituela jendea kokatzen den heinean eta ohitura berriak sortzeko amagunea dala, baina Arrasateko kultur bizitzan astintze bat bilatzen badugu eta agenda bateratua moduko egitasmoak nolabait estimulatu nahi badugu, inportantea da pertsona bat horretaz arduratzea. Sartu ahal genuen emendakin hau edo Amaia Antzokiarena ere aipatu ahal genuen. Guri iruditzen zaigu kulturaz ari garenean osotasuna ikusi behar dugula, gaur egun daukaguna eta ez daukaguna, eta iruditzen zaigu ere intangiblea den horretan ere, dela gure herriko kultur taldiek ekoizten dutena, beraien bizimodua, beraien kezkak, erreleboa edukiko duten ala ez, horretan ere inbertitu behar da. Gure ustez interesantea da orain hastera, eraikinaren obra amaitzen denerako, eta jendea bertan sartzen denerako, ohitura batzuk establezitura egoteko. Hementxe ikuspuntu ezberdinak daude, baina guk bagenerkan haxe plenorako, bueno ba apur bat herritarrek be entzuteko.

M. UBARRETXENA (LEHENDAKARIA):

Orain, bozkatzera pasatuko gara.



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

EMANDAKINAREN BOZKETA

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	10	EH-BILDU (7), BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak:		

Beraz, ez onartua.

5. HILETA ZIBILENTZAT ESPAZIOA SORTZEKO PROIEKTUA EGITEKO PARTIDA SORTU – 40.000 €

E. BARBERENA (EH BILDU)

Hau, gure emendakinak ardoak izango baziren hau reserbaruntz doia. Ia, esango nuke hirugarren urtea dela aurkezten duguna, aurten itxura berrituta, ia ez gara zentratzen San Kristobalگو eremu horretan, baizik eta fokoa irekitzen dugu, aukera berriak aztertzeko prest gaude eta iruditzen zaigu 2018 izan ahal dela gai hau nolabait enkausatzen hasteko aukera. Sinadura kanpaina bat abiatu giñun, egitasmo honek egitasmo honek babesa zeukan ala ez, 1.869 herritarrek eman dozkue euren babesa. Partida ez da onartu, badakigu lanketa bat egiteko disposizio bat dagoela, baina plenora dakargu nolabait iritzixe garbi egon dadin, eta herritarrek honen berri eduki deixien.

O. GARCIA (PSE-EE)

Sí, bueno, en principio ver que se mantenía la enmienda me ha causado cierto asombro, cuando como tú bien sabes hemos estado hablando de estos y el gobierno municipal se ha comprometido a hacer un trabajo al respecto en la Comisión de Obras, Servicios, Mantenimiento y Barrios, que es a la que le correspondería tomar cartas en el asunto, y en la propuesta que tú nos hacías y que hemos acordado se dice que a partir del año que viene, osea, pronto, pues empezaremos a trabajar el tema; bien has dicho, que ya la traéis sin que lo de San Cristóbal sea una línea roja, bueno quizá eso ha sido el desbloqueo. Hay que proponer sitios, hay que proponer una modificación de la ordenanza de encierros civiles, hay que ponernos todos de acuerdo, tenemos mucho trabajo por delante, y en cuanto a crear una partida, consideramos que no es necesario porque hay una partida dentro de la Comisión de Obras, Servicios, Mantenimiento y Barrios que se llama honorarios técnicos que podría asumir perfectamente un hipotético proyecto de cara a futuro. De todas maneras es algo que toca la



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

sensibilidad de mucha gente, que tenemos que hacerlo, euskeraz esaten da zuhurtazunez, lasai hartuta gauzak, eta egingo dugu lanketa, Eneko, egingo dugu lanketa, konpromezu hori badago.

E. BARBERENA (EH BILDU)

Guk ez dugu eskatzen gehio, kasu honetan nahiago geunke partida, baiña ala eta be, nahi giñun horren plasmazio bat eta, satisfetzotzat ematen gare eta bueno horixe da istoria, eh? Hala ere, eruango dugu bozketara emun deitzen ia hor ekarri dugu eta agertu deitzen hori, eta listo.

J.L. ENCINAS (EH BILDU)

Galdera bat egin nahi dut: arratsalde on denori. Guri, non eta noiz landu duzue edo eztabaidatu duzue? En la casa del pueblo? OZMAAn ez. Edo gaizki... Bai baina orain arte OZMAAn ez dugu eztabaidatu.

E. BARBERENA (EH BILDU)

Ez, nik uste dut plenorako ekarri dugule bestelako hura ta... ez, beittu, kontua da, horri buruz hitz egiten egon ginen egin giñunian gobernuaren bilerak, egon giñenean aurrekontuak aztertzen, eta Oscarrek aipatu zuen bertan. Orduan, OZMAra bideratuko da.

J.L. ENCINAS (EH BILDU)

Ezabatzen dut esan dudana.

M. UBARRETXENA (LEHENDAKARIA):

Orain, bozkatzera pasatuko gara.

EMENDAKINAREN BOZKETA



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	10	EH-BILDU (7), BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak:		

Beraz, ez onartua.

6. AUZOETAKO KOMERTZIOEN EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA EGITEA KOMERTZIO PLAN ESTRATEGIKOARI GEHITZEKO – 15.000 €

E. BARBERENA (EH BILDU)

Bueno, hemen, Juan Luis irakurle ona da eta nire antzeko gauzak irakurri ditudun memorian, komertzio plana onartu berri, memorian egiten den aipamena da eta hitzez hitz jartzen du, “Arrasateko herritarrek herrian eros dezaten bultzatzeko eta batez ere astebukaerako herri bertako komertzioa bultzatzeko ekintzak egiteko kontusailak sortu dira, ildo honetatik doaz gabonetako argiak jartzeko kontusaila edo gabonetako izotz-pista jartzearena”. Pentsatu nahi dugu, eta gaiñera lehen gonbidapena egin jaku ideia gehiago egongo direla komertzioak urte osoan zabalik egoten direlako besteak beste, gabonetatik haratago, baina pentsatzen jaku memorian agertzen dan horren reflejo bat badauela planteamentuan, dala elaborazio gehiago behar dela. Gure ustez gainera elaborazio hori behar da baita ere, eta plana irakurrita, auzoen egoerak eskatzen du irakurketa espezifiko bat, auzoen errealidadea, erdigunearengandik ezberdina delako, inkusio auzo bakoitzaren errealidadea ezin da konparatu besteekin, eta horregatik eskatzen duguna da auzoetako komertzioaren egoeri buruzko diagnostikoaren eranskin bat izango litzake agian, kapitulo barri bat gehitzea horri gero bere ekintza plana eduki beharko leukena, baina iruditzen jaku komertzioak eduki behar dauela inportantzia eta horregatik sartu degu emendakina.

O. GARCIA (PSE-EE)

Bai, Eneko. Argiei eta pistari buruz ez noa hitz egitera. Nik uste dot errealitate bat dala, arrakasta daukotela, urtez urte jendia gero eta gehiago hobeto ikusten dau holako ekimenak egitea, baiña zuen emendakinaren transfondua ez da hori. Zuen emendakinaren transfondua auzoetan komertzioa sustatzea eta eraberritzea da. Badau partida bat, 18.000 eurokoa, eta partida horren xedea de komertzio plana aurrera eraman behar dituen ildo nagusiak aurrera eramatea. Ildo horien artean,



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

badago aurreikusita auzoei buruz hausnarketa bat egitea, beraz, ez dugu ikusten beste partida bat sortzea, baldin badago dirua gauza bera lantzeko.

E. BARBERENA (EH BILDU)

Guk ez dogu esan gauzenik gabon argien kontra, oraingoan ez. Guk esan duguna da memorian agertzen dena komertzioari buruz, hori besterik ez dela eta espero dugula proposamen mamitsuagoren bat egongo dela eta partidaren kasuan, bueno, gauza da ekintzak egiteko guk eskatzen duguna da diagnostikoaren eranskin bat, baina zen horixe aklatzearren.

M. UBARRETXENA (LEHENDAKARIA):

Orain, bozkatzera pasatuko gara.

EMENDAKINAREN BOZKETA

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	10	EH-BILDU (7), BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak:		

Beraz, ez onartua.

7. EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA BULTZATZEKO “ARRASATE HERRIA” LEHIAKETA PARTIDA BERRIA SORTZEA – 7.500 €

E. BARBERENA (EH BILDU)

Guk uste genuen proposamen honek bide luzeagoa edukiko zuela, kooperatibagintzaren balioa aintzat hartu nahi dauen udal batentzat behintzat, eta guk uste genuen interesatea izan ahal zala ekonomia sozial eraldatzailearen alorrean, Arrasate herri erreferentzialago bihurtzea. Izan ere, badago tradizio bat, kooperatiboa eta herrigintzakua, eta iruditzen jakun ekonomia sozial eraldatzaileek sona haundixagoa euki ahal zuela Euskal Herrian honi esker. Iruditzen jaku gainera,



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

ekonomia sozialaren kasuan, diru mozkiña inportantiagook diren helburuak egoten direnez, ba izan ahal zala modu bat alternatiba horrek ikustarazteko eta beste eredu batzuk badazela agirian ipintzeko eta herritarrek horren berri eukitzeko. Horregatik aurkeztu dogu emendakina eta nahiko geunke horren inguruan botoa ematea.

M. UBARRETXENA (LEHENDAKARIA):

Orain, bozkatzera pasatuko gara.

EMENDAKINAREN BOZKETA

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	10	EH-BILDU (7), BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak:		

Beraz, ez onartua.

8. BIZIKLETA GARBITZEKO GUNEA KONTUSAILAREN GUNEA MANTENTZEA 3.000 EUROTAN

E. BARBERENA (EH BILDU)

Bueno, hau ez da gran reserva, baina crianzaruntz badoie. Iaz komentatu zen ez zela interesgarria, dirua xahutzea zela. Bueno, uraren kontrolarekin ados, eta iruditzen jaku ezinbestekoa dela arduratsu jokatzeko hor. Baina gaur egun, autokarabananen guniek, por cierto, ez dena gauzatuko Arrasaten 2018an ezta, eta bizikleten guen hauek diren turismo aktiboa estimulatzeko funtsetako bat eta Arrasaten atzean ari gara geratzen, ez? Guk uste giñun uraren kontrola mantenduz, egitasmo bat gauzatu ahal zala arlo honetan txirindulari komunitatearen babesarekin eta Zigarrolako hainbat herritarren eta inkluso auzo alkatetzan apoiuarekin. Horregatik aurkeztu dogu. Beste barik.

O. GARCIA (PSE-EE) -1:24:52



Esp.-kodea: 2017SAPL0010

Autokarabanena, eta zuek hemen presentatzen duzuen emendakina, aurrekontu partehartzailearen artean dago. Posible litzateke bozkatua izatea eta aurrera eramatea. Guk ikusten dugu badauela gunee bat Arrasaten bizikletak garbitzeko, badago gunee bat Garagartzan bizikletak garbitzeko. Urrun dago? Gertu dao? Garagartzakoentzat oso gertu, Muxakolakoentzat oso urrun. Uraren kudeaketari buruz, zuk ondo esan duzu, ura gure altxorrik preziatuena bihurtzen ari da tamalez... Zuen beste proposamen batzuekin bat egin genuen, adibidez, “área de entretenimiento de vehículos” deitzen zaiona, mankomunitatera ba eskaera bat hurbiltzeko, ea makomunitatearen bidez, denon artean ordaindu genezakeen ala ez; zerbitzu hau, nik uste dut berdina dela, Arrasatekoentzat bakarrik ez litzateke izango, guztiontzat izango litzateke, nire ikuspuntutik, eh? Gero beste gauza bat planteatzen baldin baduzue, 3.000 eurokin ez doie iñora. Guk uste dogu badauela tokixa bizikletak garbitzeko, guk uste dugu uraren kudeaketa oso garrantzitsua dela eta beste puntu bat jartzea ura botatzeko ez dala interesgarria, eta... bueno, jendeak kontrakoa esaten baldin badigu, ados eta aurrera egingo dugu horrekin.

E. BARBERENA (EH BILDU)

